## ZUMABURU GOIKALE

## AUZOZ AUZO, PAUSOZ PAUSO

**DATA:** Martxoak 23
**ORDUA:** 19:00-20:30
**PERTSONA KOPURUA:** 25 (17 emakume/ 8 gizonezko).

Bilera hasteko, auzoz auzoko lehengo bileren balorazio txiki bat egin da, etorri direnei bertan egindakoa gogorarazteko eta hurbildu den jende berria kokatzeko.

Lehenengo bilerak bukatutakoan, parte-hartzeko departamentuak egiten duen balorazioa oso positiboa da. Kontuan izanik planteatu den dinamika berria dela, auzotarren erantzuna egokia eta parte-hartzailea izan dela uste da.

Asistentzia aldetik, 15-50 pertsona agertu dira bileretara. Kopuruak auzoaren arabera ezberdinak izan dira; guztira, 184 pertsonak parte hartu dute.

Guztira, 278 gabezia, kezka eta proposamen jaso dira. Auzoetan, gabezia komun batzuk atera dira; esate baterako: txakur-kaken arazoa, garbiketa, komertzio txikiaren sustapena…

Zehazki, auzoko datuak honako hauek dira:

- 37 pertsona hurbildu ziren bilerara.
- 14 emakumezko eta 23 gizonezko.
- 52 proposamen jaso ziren.

**BILERAREN HELBURUAK:**

Lehenengo bilera gabeziak, kezkak eta proposamenak jasotzeko izan bazen, bigarren bilera hau ideia horiei lehentasuna emateko izan da. Udalak horren arabera lanean hasteko asmoa du. Bigarren bileretara joatearen garrantzia da bertan lehentasunak ezarriko direla.

Lehenengo bilerako gabeziak, kezkak eta proposamenak 3 multzotan sailkatu dira:

**Berdea**: Udalak konpetentzia osoa du, eta horiei epe motzean (urtea amaitu arte) erantzun bat ematera konprometitzen da. Erantzuna ez da zertan exekuzioan bakarrik ulertu behar. Batzuk aurrekontu eta lanketa gutxiko gaiak dira, berehala egitekoak. Beste batzuk, ez hain berehalakoak. Horien artean, auzolanean egitekoak aurkituko ditugu.

**Laranja:** Udalak konpetentzia osoa du. Baina, proiektuaren tamainagatik, ezin du berehala erantzun. Laranjaz sailkatutako gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Aurrekontu bat eskatzen du, eta lanketa sakona. Lanketak herritarrekin HPHLak sortuz egin daitezke, eta prozesuaren 3. fasean aurkeztuko lirateke. Bertan, udalak diru-partida finko bat erreserbatu beharko luke, eta auzotarrek erabaki beharko lukete zein proiektu egingo diren. Horrela, datorren urteko aurrekontuan sartuko lirateke eta datorren urtean gauzatuko.

**Gorria**: Udalak ez du konpetentzia osoa, ezin du erabakia gauzatu. Beste instituzio edo elkarte batzuei dagokie gaia, guztiz edo partzialki. Hala ere, gorriz sailkatuta dauden gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Horrela, udala dagokionari zuzenduko zaio, eskaera ofizial bat eginez proiektua bultzatzeko.

## ZUMABURU GOIKALE

**BILERAREN DINAMIKA:**

Dinamikarekin hasi aurretik, auzotarrei aipatu zaie, aurreko bileran ateratako kezka, gabezia edo proposamenen bat falta bada, esateko eta apuntatu egingo dela.

Gabezien multzokatzea (berdea, laranja eta gorria) paretan jarri da, ondoren puntuazioa bertan idazteko.

Bileraren dinamika lehenengo bileraren dinamikaren antzekoa izan da. Auzotar bakoitzak minutu pare bat izan ditu, bakarka, kezkei, gabeziei eta proposamenei lehentasunak ezartzeko. Auzotar bakoitzak multzokatze bakoitzari (berdea, laranja eta gorria) garrantziaren arabera 1, 2 edo 3 puntu (3 puntuaketa altuena eta 1 baxuena) emateko aukera izan du.

Bakarrik dauden bitartean, forma ezberdinetako gozokiak banatu dira. Talde txikiak egiteko erabili da hori.

Talde txikietan (4-5 pertsona), bakoitzak jarri dituen lehentasunak komentatzeko aukera izan dute. Taldean bozeramaile bat izendatu da, eta pertsona hori izan da taldeak gabezia bakoitzari emandako puntuazioa ozenki adierazi duena.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde ibili dira, laguntza eskaintzeko, behar izanez gero.

Talde handian jartzean, talde bakoitzeko bozeramailea gabezia bakoitzari jarritako puntuazioa esaten joan da. Talde guztiek denak aipatu arte. Ondoren, puntuazio handiena atera dutenetik txikiena atera dutenera ordenatu ditugu, lehentasuna argi ikusteko.

Bukatzeko, auzotarrek gabezia bakoitzaren inguruan proposamenen bat baldin badute, jaso egin da.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarri da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

**Itxiera:**

- Gai zehatzen inguruan bilerak egiten direnean deialdi zuzena egingo zaiela.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

HitzHartu!
LASARTE-ORIAKO UDALA

**ZUMABURU/GOIKALE**

## Udalak konpetentzia osoa du eta epe motzean erantzuna.

### Es competencia del ayuntamiento y responderá pronto.

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| 25 | • Txakur kakak.<br>• La problemática con los excrementos del os perros | • Arazoa ez da kalean bakarrik, lorategietan ere.<br>• El problema no es solo en la calle, también en los jardines<br>• Lehenengo aldian abisua, bigarrenean isuna.<br>• Primero vez aviso, segundo vez multa. |
| 17 | • Zikinkeria eta arratoiak: erribera kalean eta Zumaburu 10.<br>• La suciedad y Ratas: Erribera kalea y Zumaburu 10 | |
| 9 | • Udaletxeko espaloia oso estua da.<br>• La acera del ayuntamiento es muy estrecha | • Espaloia zabaltzea zaila izango denez, gutxienez piboteak kendu.<br>• Como será difícil ensanchar la acera, por lo menos quitar los pivotes.<br>• Aldapa bezala kotxeak 10Km/h joan behar izatea.<br>• Poner velocidad máxima 10kn/h<br>• Herri guztia 30km/h jartzea.<br>• Poner en todo el pueblo que la velocidad máxima sea 30km/h |
| 9 | • Udaletxe aurrean zebrabide gehiegi daude.<br>• Hay demasiados pasos de cebra delante del ayuntamiento | • Zebrabideak ondo, soberan semaforoak.<br>• Los paso de cebra están bien, en todo caso sobra el semáforo. |
| 9 | • Zaborra edukiontziaren kanpoa uzten dute<br>• La basura la dejan fuera del container. | |
| 8 | • Beharra duten pertsonei laguntza puntualak.<br>• Ayudas puntuales para la gente que los necesita | |
| 6 | • Gastu publikoaren kontrola<br>• Control del gasto publico. | • Gastua kontrolatu eta bigilatu.<br>• Controlar y vigilar el gasto<br>• Herritarrak informatu zer gastu dauden, departamentu bakoitzak jasotzen duena.<br>• Informar al pueblo de los gastos que hay, cada departamento cuanto se lleva… |

**ZUMABURU/GOIKALE**

| | | |
|---|---|---|
| **5** | • Okendon iturria jarri<br>• Poner una fuente en Okendo. | |
| **5** | • Ibai ondoko parkera joateko bidean egurrak daude, Lanbide eskolaren inguruak txukundu hortik pasa ahal izateko.<br>• Para ir al parque que esta al lado del río, el camino esta lleno de maderas, habría que limpiarlo | |
| **5** | • Alokairua indartu.<br>• Reforzar el alquiler | |
| **4** | • Udaletxe berriaren atzeko parkea ekintza asko egin daitezke.<br>• Se pueden hacer muchas actividades en el parque de la libertad | |
| **4** | • Lorategiak txukundu, lurra aldatu, ez da egokia (Goikale 21)<br>• Arreglar los jardines, cambiar la tierra, no es adecuada (Goikale 21) | . |
| **4** | • Zumaburu plazako loreontziak arriskutsuak dira.<br>• Los maceteros de la plaza Zumaburu son peligrosos. | |
| **3** | • Transformadoreari ura erortzen zaio eta putzuak sortzen ditu. (Erribera 9 eta Zumaburu 10)<br>• Cae agua del transformador crea charcos (Erribera 9 y Zumaburu 10) | . |
| **3** | • Bizilagunen zaratak.<br>• Ruidos de los vecinos. | |
| **3** | • Garbitasuna orokorrean<br>• Limpieza en general | |
| **3** | • Haurrentzat euskara indartzeko ekintza ezberdinak: zinema, mendira, jolasak…(gurasoekin egiteko espazioak sortu).<br>• Diferentes actividades para fomentar el euskara: cine, monte, juegos (un lugar para padres/madres con los hij@s). | |
| **3** | • Isla plaza erdi erdian farola bat dago.<br>• En la mitad de la Isla plaza hay una farola. | |
| **2** | • Konpostajerako gune bat jartzea (baratzen inguruan).<br>• Un sito para hacer compostaje (por las huertas por ejemplo) | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

| | | |
|---|---|---|
| **2** | • Kultur ekintza gutxi daudela iruditzen zaie batzuei, Kultur Etxea gehiago aprobetxatu, ordutegiak kontutan hartu.<br>• Beste batzuen ustez gauzak egiten dira baina jendea ez da joaten.<br>• Hay pocas actividades culturales . aprovechar mas la casa cultura: tener en cuanta los horarios.<br>• Otros creen que se hacen actividades pero la gente no va. | |
| **1** | • Zinema igandetan oso zikina egoten da haurren sesioa izaten baita lehenago.<br>• La sesión de adultos suele estar muy sucio porque antes suele ser el de los niños. | . |
| **1** | • Boluntarioak pertsona helduekin.<br>• Voluntarios para las personas mayores | • Asesore edo orientatzaile bat diru laguntzak non eskatu, igogailua jartzeko diru laguntzak, eguneroko bizitzarako dauden baliabideak erakutsiko dizkioten norbait.<br>• Asesor  u orientador para temas como ayudas económicas,  ayudar para poner un ascensor, dar a conocer las ayudas que hay para la vida cotidiana. |
| **1** | • Liburutegia txikia geratu da eta masifikatua dago(soinuak asko nabaritzen dira: dantza, musika eskola…).<br>• La biblioteca se ha quedado pequeña y esta masificada. (se notan mucho los ruidos: bailes, escuela de música…) | • Liburutegia eguerdietan eta gauetan irekitzea.<br>• Abrir la biblioteca mediodías y noches. |
| | • Kiroldegi atzean argi gutxi.<br>• Detrás del Polideportivo hay poca luz. | |
| | • Kiroldegia ordaintzea errentaren arabera.<br>• Pagar el polideportivo segur la renta de cada uno | |
| | • Kiroldegia urte osoa ordaintzen da eta opor egun gehiegi ditu.<br>• Se paga el polideportivo todo el año y tiene muchos días festivos | |
| | • Liburutegi eta kiroldegia urtean zehar opor egun gehiegi dituzte.<br>• La biblioteca tiene demasiados días festivos. | |
| | • Taberna barruetako soinua gehiegizkoa.<br>• El volumen de la música es demasiado alta en los bares. | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

| | | |
|---|---|---|
| | • Isla plazako zuhaitzen adarrak kimatu.<br>• Cortar las ramas de los árboles de Isla plaza. | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

**Udalak konpetentzia osoa du baina tamainagatik ezin berehala erantzun.**
**Es competencia del ayuntamiento pero por el tamaño no puede responder enseguida.**

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| 25 | • Udaltzainen aldetik kontrol gehiago: gaizki aparkatutako kotxeak, gauetako zaratak…<br>• Udaltzaingoaren funtzioak zeintzuk diren.<br>• Mayor control por parte de los municipales,: coches mal aparcados, ruidos nocturnos…<br>• Saber cuales son las funciones de los municipales | |
| 20 | • Atez atekoa herrian jarri aurretik herritarrei galdetzea eta erabakitzea.<br>• Antes de poner el puerta a puerta preguntárselo a los habitantes del municipio y que decidan ellos. | |
| 13 | • Zuhaitz artean aparkalekuak berreskuratu.<br>• Recuperar los aparcamientos que había entre los árboles | |
| 10 | • Aparkalekuak jarri (ordu zehatz batzuetarako, denbora mugatu).<br>• Poner aparcamientos para horas concretas, con tiempo limitado). | • Denbora mugatua, baina ez OTA bihurtzea.<br>• Tiempo limitado, pero que no se convierta en OTA.<br>• Lekuaren arabera birakorra izatea (erdigunean adibidez).<br>• Según el sitio que sea rotatorio (por ejemplo en el centro). |
| 7 | • Zumaburu kalean argi gehiegi batzuentzat eta gutxiegi beste batzuentzat.<br>• En “Zumaburu kalea” hay mucha luz para algunos y poco para otros. | |
| 7 | • Garajeetako loratégia kendu eta espaloi bihurtu.<br>• Quitar el jardín de los garajes y poner una acera (juntarlo con el que llega de “zumaburu kalea”. | |
| 7 | • Garajeen atzeko espaloia kotxez beteta egoten da beti.<br>• La acera que está detrás de los garajes suele estar llena de coches | |

## ZUMABURU/GOIKALE

| | | |
|---|---|---|
| 5 | • Jubilatuetan emergentzietarako irteera jarri.<br>• Poner un salida de emergencia en los Jubilados. | . |
| 5 | • Isla plazako lorategietatik ura infiltratzen da garaje eta trastelekuetara. Alde batera eta bestera .<br>• Desde los jardines de Isla plaza se filtra agua a los garajes y trasteros | |
| 5 | • Ibai ondotik bidegorria jartzea<br>• Poner Bidegorri al lado del río | . |
| 5 | • Loidibarren frontoi aurreko aparkalekua txukundu.<br>• Arreglar el parking del frente del frontón de Loidibarren. | |
| 4 | • Zebrabidea jartzean arketa bat tapatu zuten eta euria egiten duenean espaloiak erreka bihurtzen dira. (Goikale 19,21)<br>• Al poner el paso de cebra se tapo una arqueta, cuando llueve la acera se convierte en un río. (Goikale 19,21). | |
| 3 | • Komertzio txikia sustatu.<br>• Fomentar el pequeño comercio | |
| 3 | • Geldituen plataforma<br>• Plataforma de parados | |
| 2 | • Kirol instalazio egokiak Isla Plazan (Futbol kanpo txikia…)<br>• Instalaciones deportivas (pequeños campos de futbol…) | |
| 2 | • Kotxeak espaloi gainean aparkatuta egoten dira eta kotxe abandonatuak (Goikale).<br>• Los coches suelen estar aparcados encima de la acera y también hay coches abandonados. (Goikale). | |
| 2 | • Gune berdeen gabezia.<br>• Más zonas verdes | |
| | • Zumaburuko ikastolaren pareko aldapan baranda eta arketa bat jartzea ondo egongo litzateke.<br>• En la cuesta q hay en frente de la escuela de Zumaburu poner una barandilla y arqueta. | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

| | | |
|---|---|---|
| | • Zumaburu elizako errepidea bi norabidekoa egitea.<br>• Poner la carretera de ka iglesia de Zumaburu bidireccional. | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

## Udalak ez du konpetentzia osoa

### No es sólo competencia del ayuntamiento.

| | GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes | PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones. |
|---|---|---|
| 30 | • Baxuetako atariak: pintadaz beteak daude, armiarmak… orokorrean oso zikina (8 znk.).<br>• Los bajos están llenas de pintadas, arañas... en general muy sucio (portal nº 8) | • Udaletxearekin akordio batetara iritsi hau garbitzeko (hilean behin udalak garbitzea), edo burdin hesi batzuk jarri bizilagunak bakarri sartzeko…<br>• Llegar a un acuerdo con el ayuntamiento (una vez al mes que lo limpie el ayuntamiento), poner una verja para que solo entren los vecinos … |
| 23 | • Oinezkoentzat bidea Zumaburu, hipodromoa, Bugati buelta egin ahal izateko.<br>• Poner un camino para peatones Zumaburu-Hipodromo, para poder hacer la vuelta de Bugati. | |
| 21 | • Baxuetan, Ola kalearen aldetik, portaletako ateak puskatuta.<br>• En los bajos, por el lado de Ola kalea han roto mas de una vez los cristales del portal. | • Bigilantzia gehiago.<br>• Más vigilancia |
| 20 | • Industrialdea berritu eta lanpostuak indartu<br>• Renovar la industrialdea y crear puestos de trabajo | |
| 11 | • Txintxarri bezalako aldizkaria baina elebiduna.<br>• Una revista como el Txintxarri pero bilingüe | |
| 6 | • Kiroldegia udan 15 egun ez ixtea, (eta eguerdietan ere ez).<br>• No cerrar el polideportivo 15 días (ni al mediodía) | |
| 5 | • Kaleetako asfaltoa gaizki dago.<br>• El asfalto de las calles esta mal. | |
| 4 | • Erribera kaleko zorua aldatu.<br>• Cambiar el suelo de Erribera | |
| 3 | • Herri aldizkaria astean bitan izan beharrean 15 aldiro izatea. Beste | |

**ZUMABURU/GOIKALE**

| | | |
|---|---|---|
| | batzuen ustez astean bitan argitaratzea egokia da<br>• . Txintxarri en vez de dos veces a la semanal que sea quincenal En opinión de otros esta bien que sea dos veces a la semana | |